

# Saci Perere





Saci Perere

Saci Pereré

Egileak

Kontakizuna: Vinicius Eronide Da Silva

Herrialdea: Maria Helena, Parana, Brasil

Hizkuntza: Portugesa

Ilustrazioak: Carmen Olano Iriarte

## Saci Pererê

Era uma vez, um menino muito alegre e divertido que vivia em uma aldeia indígena em plena floresta. Ele era negro, pequeno e muito travesso. Sempre correndo de um lado para o outro e inventando novas maneiras de brincar. Um dia ele estava brincando de luta capoeira, com outros meninos de sua tribo, quando se descuidou e caiu em uma fogueira.

Quando ele conseguiu sair de dentro do fogo, estava completamente diferente: Tinha somente uma perna, usava um gorro vermelho e fumava um cachimbo. A partir desse dia, seu destino era seguir fazendo travessuras em todas as partes, pulando com sua única perna.


O que ele mais gosta de fazer é assustar os cavalos pela noite, entrar na casa das pessoas para desfazer as camas, esconder objetos das pessoas, queimar a comida que se está cozinhando e despertar as pessoas com sua forte gargalhada. Quando o Saci Pererê faz alguma travessura, ele foge rápido em forma de redemoinho.

Para capturar o Saci Pererê se deve aproveitar, enquanto ele se transforma em um redemoinho e lançar uma peneira. Depois retirar seu gorro vermelho, que é o que lhe dá poderes e fechar-lhe dentro de uma garrafa... Mas isso claro, ainda não aconteceu. Ele segue solto na floresta fazendo o que ele mais gosta... travessuras.



Bazen behin ume zoriontsu eta jolasti bat  
basoz inguratutako herri batean bizi zena.  
Beltza zen, txikia eta oso-oso bihurria.  
Beti korrika eta jolas modu berriak  
asmatzen zebilen.

Egun batean tribuko gainerako haurrekin  
Capoeira borrokan jolasean zebilela  
despistatu eta sutara erori zen.







Sutatik irtetea lortu zuanean  
guztiz bestelakoa zen.


Egun horretatik aurrera  
asmo eta gogo bakarra hartu zuen,  
beti-beti bihurrikeriak egiten ibiltzea.







Gehien-gehien gustatzen zaiona  
gauez zaldiak izutzea da,  
etxeetan sartu eta oheak nahastea,





gauzak ezkutatzea,  
janaria erretzea eta  
bere barre algara ozenekin  
jendea esnatzea.

Saci Pererek bihurrikeriaren bat egiten duenean,  
haize-zurrunbilo bihurtu eta ihes egiten du.  
Bera harrapatzeko buruan daraman txano gorria  
kendu behar zaio, bahe batetik iragazi, eta ondoren  
botila baten barruan gorde behar da.





Baina hara! Gaur arte  
inork ez du lortu harrapatzerik.  
Beraz, basoan barrena ibiltzen da  
gustukoen duen horixe eginez...  
bihurrikeriak han eta  
bihurrikeriak hemen.





## Aurkibidea

- o1- Paleshuki eta Paleviki
- o2- Taro Urashima
- o3- Ez dago etorkizunik eta ihes egiteko ordua da
- o4- Txakurra saltoka
- o5- Gabonetako gutuna
- o6- Coquenaren kondaira
- o7- Itsasoaren aurrean etzunik
- o8- Auzo lapurraren istorioa
- o9- Otoitza aberriaren alde
- 10- Saci Perere**

Lege Gordailua  
D 01576-2021



**Azpeitia**  
Denontzat

**Kulturaz**  
Azpeitiko Kultur Kooperatiba





*Istripua Brasilgo oihanean. Suaren magiak izaki miresgarri  
bihurtuko du haur bat. Ezin du geldirik egon, hain da jostari,  
hain da bihurria! Hura geldiarazterik ez du inork lortu  
gurdaino... Egin aproba eta harrapazank!!!*

